



Euskara eta natura: gure ondarearen batura

**Biologia eta Geologia – Euskara
DBH 3. maila**

AURKIBIDEA

<u>SARRERA</u>	<u>3</u>
<u>IKAS-EGOERAREN TXANTILIOIA</u>	<u>4</u>
<u>DATU OROKORRAK</u>	<u>4</u>
<u>ARGUDIAKETA CURRICULARRA</u>	<u>5</u>
<u>METODOLOGIA</u>	<u>8</u>
<u>JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA</u>	<u>8</u>
<u>I. ERANSKINA</u>	<u>13</u>
<u>II. ERANSKINA (ERRUBRIKAK)</u>	<u>20</u>
<u>III. ERANSKINA (GIDAK)</u>	<u>22</u>
<u>IV. ERANSKINA (AUTOEBALUAZIOA)</u>	<u>23</u>

SARRERA

IRALEko R900 ikastaroan egin dugun proiektu honen helburua ahozkoitasuna modu sistematikoan eta kontzienteki lantzea da. Horretarako, ikas-egoera bat sortu dugu, arlo hauek jorratzeko; gaur egun gazteen errealitate soziolinguistiko ezberdinez jabetzea, lagunarteko erregistroa lantzea eta naturak euskaran duen loturaz eta eraginaz jabetzea.

Ikas-egoera bi ikastetxeren artean landuko da: bata arnasgune batean dago (Azkoitia), eta bestea eremu erdaldunagoan (Durango). Lagunarteko erregistroa lantzeko, Durangoko ikasleek Azkoitikoak hartuko dituzte erreferentetzat, euren eguneroko jardunean baliabide gehiago eskaintzeko asmoz. Horretarako, bi ikastetxeetako ikasleek elkarrizketak egingo dituzte bideodeiez. Bideodeia izango da azken ekoizpena ere: nor bere herriko erliebe geologikoa eta ingurunea azalduko die beste herrikoei, naturak euskaran izan duen eraginaz jabetzeko.

IKAS-EGOERAREN TXANTILOIA

DATU OROKORRAK	
Izenburua	Lizentzia
Natura eta euskara: gure nortasunaren ondarea	
Inplikaturiko arloak, jakintzagaiak edo eremuak	Maila
Biologia eta Geologia – Euskara	DBH 3. maila
Saio-kopurua	
11 saio	
Ikas-egoeraren markoa	
<p>Testuingurua:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azkoitia BHI: 550 ikasle inguru ditu eta D ereduko ikastetxea da. Azkoitiko ikasle gehienek euskara du ama-hizkuntza, eta euskaraz aritzen dira eguneroko bizitzan, bai ikastetxean zein kalean. Ikasleen guraso askok kontaktu zuzena izan dute baserriko bizimoduarekin, oso gertuko izan dutelako modu batera edo bestera. Ondorioz, darabilten hizkuntzan eta inguruko lekuetan nabarmena da naturak eta hizkuntzak duten harreman estua. - San Jose ikastetxea (Durango): Durangoko erdigunean dagoen itunpeko ikastetxea da. 1.200 ikasle inguru ditu eta 0 urtetik 18 urtera arteko etapak hartzen ditu. Eredu nagusia D eredua da eta DBHn B eredua ere eskaintzen da. 21-22 ikasturtean egindako diagnosiak erakusten du ikasleen % 22 inguruk erabiltzen duela euskara, eta azken etapetan argi ondorioztatzen da erabilera are txikiagoa dela. Ikastetxeko datuak Durangoko herrian egiten den erabileraren azpitik daude; dena den, dagoen aldea ez da oso nabarmena, Durangon 10 lagunetik 3k euskara erabiltzen duelako. <p>Abiapuntua: 21-22 ikasturtean egindako diagnosiaren arabera (Ulibarri, Soziolinguistika Klusterra) euskararen erabilera behera egiten ari da zenbait lekutan. Proiektuaren abiapuntua bi hizkuntza-egoera bizi dituzten ikastetxeen arteko elkarlana izango da: bata arnagunea; bestea, erabilera-maila apalagoa duen gunea bat.</p> <p>Azken ekoizpena edo produktua: Ikasleek haien herriko erliebe geologikoa aztertu eta inguruneari buruzko txostena egingo dute. Ondoren, beste ikastetxeko taldearekin ahozko saioa egingo dute taldeka, txostenean bilduriko informazioaren berri emateko bideodeiez.</p>	
Proposamenaren xedea	
<ul style="list-style-type: none"> ● Ahazkotasuna lantzea: alde batetik, ahozko azalpen formala, eta, bestetik, ahozko elkarriketa eta bat-batekotasuna. ● Adin bereko ikasleek dituzten errealitate soziolinguistiko ezberdinez jabetzea, horrek dakarren aberastasunarekin (askotan ikastetxean edo norbere bizitokiko egunerokoan bizi duten errealitateaz soilik jabetzen dira). Horrenbestez, helburua da ikasleen euskararekiko atxikimendu eta 	

euskalduntasunarekiko autopertzepzioa indartzea lortzea, ikasleen autoestimu linguistikoa eta erabilerarekiko motibazioa indartzeko asmoz.

- **Euskarak eta naturak duten lotura eta errealitateaz jabetzea** (kasu honetan Azkoitia, Durango eta Bilboren artean).

ARGUDIAKETA CURRICULARRA

Funtsezko kompetentziak	Deskriptoreak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
BIOLOGIA ETA GEOLOGIA				
HKK, STEM, KD eta KPSII.	HKK3, STEM4, KD1, KD2, KD3, KD5 eta KPSII4.	1. Informazioa identifikatzea, lokalizatzea eta hautatzea, bere egiazkotasuna egiaztatuz, jarrera kritikoz antolatuz eta baloraturaz, zientzia biologiko eta geologikoekin lotutako galderak ebazteko.	1.2. Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertzea, sasi zientzietatik, gezurretatik, konspirazio-teorietatik, funtsik gabeko sinesmenetatik eta abar bereiziz, eta mezu horien aurrean jarrera eszeptikoa edukiz.	Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak: - Informazioa bilatzeko, kolaboraziorako eta hainbat formatutan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...) prozesuak, emaitzak edo ideiak komunikatzeko tresna digitalak. - Informazio zientifikoko egiazko iturriak.
HKK, STEM, KD eta KAKK.	HKK1, HKK2, HKK5, STEM4, STEM6, KD2, KD3 eta KAKK4.	2. Informazioa eta datu zientifikoak interpretatzea eta transmititzea, eta horiei buruz argudiatzea, hainbat formatu erabiliz eta hizkuntza zientifikoaren izaera unibertsala aitortuz, zientzia biologiko eta geologikoen kontzeptuak eta prozesuak	2.2. Biologia eta Geologia irakasgaiaren jakintzekin lotutako informazioa argi eta garbi komunikatzea, hizkuntza-egitura, terminologia eta formatu egokiak erabiliz (ereduak, grafikoa, taulak, bideoak, txostenak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak,	Ikerketa zientifikoaren oinarrizko metodologiak: - Prozesuen, emaitzen edo ideien komunikazioa formatu analogiko edo digitaletan (aurkezpena, grafikoa, bideoa, posterra, txostena...).

		aztertze.	eduki digitalak...).	
STEM, KD, HK, EK ETA KAKK.	STEM1,STEM2, STEM4, STEM5, KD1, HK4, EK1 eta KAKK1.	6. Paisaia jakin bateko elementuak aztertzea, geozientzien ezagutzak erabiliz, erliebearen historia eta dinamika azaltzeko eta egon daitezkeen arrisku naturalak identifikatzeko.	6.1. Paisaia interpretatzea, bertako elementuak aztertuz eta giza ekintza jakin batzuen ingurumen-inpaktuari buruz hausnartuz.	Geologia: - Euskadiko interes geologikoko lekuak.
EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA				
HKK, KE, KD, KPSII, HK, KAKK,	HKK1, HKK3, HKK5, KE2, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, KAAK1	3. Ahozko testuak eta testu multimodalak jariakortasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitze eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko.	3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informalean, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formalean, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, beti ere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.	*Ahozko eta idatzizko testuen eta testu multimodalen forma eta edukia aztertze eta baloratzeko jarraibideak. *Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikusteearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberako egokitzapena. Hitzekoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak. Ahozko deliberazio argudiatua. *Ahozko eta idatzizko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan.
HKK, KE, KD, KPSII, HK, KAKK	HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, KPSII5, HK2, EK3.	6. Hainbat iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan hautatzea eta	6.1. Zenbait iturritako informazioa gero eta modu autonomoagoan aurkitzea,	*Informazioa bilatu eta hautatzeko estrategiak,

		kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera ebaluatuz eta manipulazio- eta desinformazio-arriskuak saihestuz; eta informazio hori ezagutza bihurtzea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa eta pertsonala hartuz eta, aldi berean, jabetza intelektuala errespetatuz.	hautatzea eta kontrastatzea, informazio horren fidagarritasuna eta egokitasuna irakurketa-helburuen arabera kalibratuz; eta informazio hori antolatzea eta norberaren eskemetan integratzea, eta modu sortzailean berregitea eta komunikatzea, ikuspuntu kritikoa hartuz eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.	fidagarritasun-, kalitate- eta egokitasun-irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia —norberaren eskemetan— eta informazioa ezagutza bihurtzeko estrategiak.
HKK, KD, KPSII, HK	HKK1, HKK3, HKK5, KE2, KD2, KD3, KPSII4, KPSII5, HK2,	5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitzeko eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.	5.1. Nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testu idatzi eta multimodalen idazketa formala eta sormenezkoa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinen arteko elkarrizketaren eta kontsultatresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailearik gabeko erregistro egokiz.	*Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikusteearekin lotzen diren ahozko produkzio formalerako estrategiak. Testu-egituretako patroien erabilera.

METODOLOGIA

Printzipioak	Antolaketa	Baliabideak
<p>Konpetentzien araberako hezkuntzan oinarrituko da proiektua. Ikas-irakaskuntza prozesua konstruktibismoan eta soziokonstruktibismoan oinarrituko da. Ikasleak izango dira ikaskuntza-prozesuaren protagonista, eta ikasleak berak eraikiko ditu jakintzak, ikasgelako esperientzietan eta bizipenetan oinarrituz, aurreko jakintzak oraingoekin kontrastatuz eta moldatuz. Konpetentziak garatze horretan, irakasleak ikaslearen ikaskuntza tutorizatuko du, hau da, haren lana da ikaskuntza-prozesuak diseinatzea, planifikatzea, antolatzea, estimulatzea, laguntzea, ebaluatzea eta bideratzea.</p>	<p>Ikasleek 2-3 laguneko taldeetan egingo dute lan, gelan bertan. Grabazioak eta bideodeiak egiteko, gelatik irteteko aukera izango dute, ikastetxeko beste gelaren bat erabiliz (liburutegia, laborategia, aretoa, libre dagoen gelaren bat...). Ikastetxe bateko talde bakoitzak beste ikastetxeko talde batekin egingo du bideodeia. Horretarako, aurretik esleituko zaio talde bakoitzari beste ikastetxeko dagokion taldea.</p>	<p>Grabazioak, txostena eta bideodeiak egiteko, ikasleek irakasleak prestaturiko gidoiak izango dituzte laguntza moduan. Txostena prestatzeko, irakasleak gomendaturiko zenbait webgune eta esteka izango dituzte informazioa bilatu, aztertu eta lantzeko. Bestalde, grabazioak egiteko telefono mugikorraz baliatuko dira, eta bideodeiak egiteko ordenagailu eramangarriak erabiliko dituzte.</p>

JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA

HASIERAKO FASEA

Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen-adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio-irizpidearekiko
<p>1. SAIOA - Proiektua aurkeztu (zer egingo dugun, nola eta zertarako azaldu). Ahozko jardueraren 1. etapa. -Gelako aurkezpena grabatu: ikasleek euren burua aurkeztuko dute.</p>					

2. eta 3. SAIOAK Azkoitiko ikasleek grabazioak egingo dituzte telefono mugikorrekin, eguneroko hainbat egoera antzeztuz.					
GARAPEN FASEA					
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen-adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio-irizpidearekiko
4. SAIOA Ikastetxe bietako bikoteak harremanetan jarriko dira zuzenean (MEET) elkarren berri izateko.					
5. eta 6. SAIOAK Txostena prestatzeko, bikote bakoitzak herriko ingurune geologikoa aztertuko du. Landu beharreko atalak eta irizpide zehatzak azalduko zaizkie (errubrikan adostutakoan oinarriturik).	<ul style="list-style-type: none"> Giza ekintzaren ingurumen-inpaktuak hizkuntzarekin duen lotura aipatu du. Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertu du. Atal guztiak landu ditu eta hitz-kopurua bete du (gutxienekoak eta gehienekoak errespetatu ditu). Terminologia egokia erabili du eta argi komunikatu du 	Txostena	Txostena ebaluatzeko errubrika	Txostenaren kalifikaziotik lorpen-adierazle bakoitzak % 20ko pisua izango du.	Txostenaren kalifikazioak azken kalifikazioaren % 40ko pisua izango du.

	<p>(terminologia zientifikoa).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ortografia eta puntuazioa egokiak izan dira. • Txostenaren formatua, azala, paragrafoen ordena, irudiak... 				
<p>7. SAIOA</p> <p>Irakasleak txostenak banatuko dizkie zuzenduta. Gainera, ahozkoa lantzeko gidoia (eredua) azalduko die, adibideak eta esamoldeak emanaz, erregistroa aipatuz, etab. jarduna planifikatzen hasi daitezten.</p>					
AMAIERAKO FASEA					
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak	Ponderazioa lorpen-adierazlearekiko	Ponderazioa ebaluazio-irizpidearekiko
<p>8-9. SAIOAK</p> <p>Prestatutako txostena aurkezten trebatuko dira: ikasleek bikoteka elkarri azalduko diote bideodeian azaldu beharrekoa, eta grabatu egingo dute (entzuleak hobekuntzak proposatzeko dizkio).</p>		<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>	<p>Errubrika erabiliko dute elkar ebaluatu eta hobekuntzak proposatzeko.</p>	<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>	<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>

<p>10. SAIOA</p> <p>Meet bidezko bideodeia. Eskola bietako bikoteek elkarri txostena aurkeztuko diote. Aurkezpena amaitutakoan, koebaluazioa egingo dute (errubrika adostua): bikote bakoitzak beste eskolako bikoteak egindako aurkezpena ebaluatuko du, entsegurako erabilitako errubrika baliatuz.</p>	<p>Txosteneko edukietan oinarritu da jardunerako, terminologia egokia erabili du.</p> <p>Atal guztiak landu ditu. Egitura oinarritzko bat garatu du (sarrera, garapena eta agurra).</p> <p>Etenak, entzuleak kontuan izan ditu. Bat-batekotasuna, naturaltasuna...</p> <p>Erregistro jaso/lagunartekoa... Egitura sintaktiko egokiak erabili ditu.</p> <p>Ongi ahoskatu du eta erraz ulertzen zaio.</p> <p>Ozentasuna, intonazioa, gorputz-hizkuntza egokiak izan dira.</p>	<p>Bideodeia grabatu.</p>	<p>Ahozkoa ebaluatzeko errubrika.</p>	<p>Ahozkoaren kalifikaziotik lorpen-adierazle bakoitzak % 20ko pisua izango du.</p>	<p>Ahozkoaren kalifikazioak azken kalifikazioaren % 60ko pisua izango du (% 80 irakaslearen ebaluazioa + % 20 koebaluazioa).</p>
--	---	---------------------------	---------------------------------------	---	--

<p>11. SAIOA</p> <p>Autoebaluazioa: ikasle bakoitzak prestaturiko autoebaluazio-galdetegia beteko du, hausnartzeko.</p>		<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>	<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>	<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>	<p>Ez du eraginik izango kalifikazioan.</p>
--	--	---	---	---	---

* Egunez eguneko saioetan egingo diren jarduerak eta atazak I. eranskinean daude zehatz-mehatz azalduta.

* Erabiliko diren errubriken eta giden zirriborroak II., III. eta IV. eranskinetan daude.

I. ERANSKINA

EGUNEZ EGUNEKO JARDUERAK ETA ATAZEN DESKRIPZIOA

AZKOITIA BHI

1. SAIOA

Proiektua aurkeztu (zer egingo dugun, nola eta zertarako azaldu). Gaiaren sarrera moduan honako bideo hau sar daiteke, ikasleak kokatzeko: <https://www.youtube.com/watch?v=YUVkKmdcSMM> . **Ahozko jardueraren 1. etapa.**

Gelako aurkezpena grabatu (10 minutu). Ikasle guztiek euren burua aurkeztuko dute, izena eta zaletasunak biltzen dituzten esaldi batzuk aipatuz (partekatutako Drive karpetara igoko da Durangoko ikasleek ikus dezaten).

2-3. SAIOAK

EGOEREN GRABAZIOA

Azkoitia: Grabazioak ikasleek egingo dituzte telefono mugikorrekin. Grabazioak Drive karpeta batean gordeko dira eta Durango eta Bilboko irakaslearekin partekatuko dira.

Ikasleek kontuan izatekoak (**ahozko jardueraren 2. etapa**, hau da, komunikazio-egoera, helburuak eta entzuleak aztertzea):

- ✓ Hartzailea kontuan hartzea.
- ✓ Abiadura eta ahoskera zaintzea.
- ✓ Gazte-hizkerari lotutako esapideak eta hiztegia erabiltzea. Horretarako, web orri hau erabiliko dute, eta, gutxienez, bertatik ateratako sei esapide erabili beharko dituzte: (<https://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/>)
- ✓ Egoera informaletan euskalkia erabil daitekeen arren, ez dadila itxiegia izan, kontuan hartu behar dute beste ikastetxeetako ikasleek Azkoitiko euskalkia ez dutela ezagutzen.

Grabazioak **ez dira ebaluatuko**, baina irakasleak feedbacka emango die eta grabatutako egoera aztertuta, bigarrenaz grabatzeko aukera izango dute. Ondoren, elkarrizketok beste ikastetxeetako irakaslearekin partekatutako Driven eskegiko dira.

Ikasleek, bikoteka jarrita, egoera bi antzeztuko dute, bata guztiz informala eta bestea formalagoa. Adibide gisa, egoera hauek hauta daitezke, arlo bakoitzetik bat aukeratu behar dute:

INFORMALA:

- Lagunartekoa, eskolako patioan atsedendian ogitartekoa jaten astelehen batean (asteburuko pasadizo bat elkarri azaldu behar diote: asteburuko partida, bazkaria/afaria lagunekin, kontzerturen bat...). (3-5 minutu)
- Hemendik bi astera zure herrian talde famatu batek kontzertua emango du. Lagun bati esaiozu ideia ona izango litzatekeela koadrilako guztiekin joatea eta konbentzitzeko argudioak asmatu. (3-5 minutu)

FORMALAGOA:

- Gurasoekin etxean bazkaltzen/afaltzen zaude eta jatekoa ez zaizu gustatzen. Aitak, aldiz, dio txikitan beti jan izan duzula, komeni zaizula eta jan behar duzula. Zu ez zaude ados eta zure haserrea agertu behar duzu.
- Irakasleak notak eman dizkizu eta espero zenituenak baino askoz txarragoak izan dira. Irakasleak deitu dizu dituzun zalantzak argitzeko. (3-5 minutu).

4. SAIOA

BINAKAKO ZUZENEKO AURKEZPENA (DURANGO-AZKOITIA)

Ikastetxe bietako bikoteak harremanetan jarriko dira zuzenean (MEET) elkarren berri izateko. Aurretiaz, gidoia emango zaie esan behar dutena prestatu dezaten. Gidoia prestatzeko 15 minutu izango dituzte eta ondoren, konektatu egingo dira..

Gidoia:

-Durango/Azkoitia ezagutzen dugu? Egon zara inoiz? Zure herrian bisitatzea merezi duen lekuren bat eta zergatik.

- Zeure burua deskribatzen duten 3 ezaugarri (lotsatia/ausarta, isila/berbatia...).

-Gustuko irakasgaiak, zergatik?

-Euskarak haien bizitzan duen tokia.

-Aisialdia: asteburuetakoko ohiturak...

-Eskolaz kanpoko ekintzak: kirolak, hizkuntzak...

-Musika: gustuko musika, gomendioak...

5-6. SAIOAK

TXOSTENA PRESTATZEN HASI

Bikote bakoitzak herri inguruko erliebe eta paisaia aztertuko ditu. Txostenaren edukia ondo zehaztuko zaie, baita ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak ere (errubrika).

Txostenaren edukia (**ahozko jardueraren 3. etapa**, hau da, informazioa bilatzea eta gaia sakon prestatzea):

1.- Herriari buruzko datu orokorrak (gutxienez 150 hitz)

- Kokapena, biztanle-kopurua.
- Etimologia.
- Zerk egiten duen herria ezagun.

2. Erliebe eta inguruneari buruzko datuak (gutxienez 300 hitz)

- Zer erliebe forma den nagusi eta erliebe-forma horren ezaugarri nagusiak (inguruko paisaien 3-4 argazki sartu behar dira; ikusgarriak badira, hobe). Herriko natura-inguruneak bizimoduan izan duen eragina aipatu.
- Inguruneko landaretza eta fauna, eta horrek bizimoduan izan duen eragina.
- Naturaren baldintzek bertako hizkuntzan utzi dituen arrastoen adibide batzuk (toponimia: gutxienez 5 adibide).

Informazioa lortu eta aztertzeko honako esteka hauek emango zaizkie ikasleei laguntza gisa:

- Herriari buruz aztertzeko: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Azala>
- Azkoitiako toponimiari buruz aztertzeko: <https://azkoitia.eus/udala/sailak/euskara/zerbitzuak/8038-azkoitiko-toponimia>
- Erliebeei buruz: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Erliebe_\(geografia\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Erliebe_(geografia))

7. SAIOA

Irakasleak txostenak zuzenduta banatuko dizkie. Gainera, ahozkoa lantzeko gidoia (eredua) azalduko die, adibideak eta esamoldeak emanez, erregistroa aipatuz, etab. jarduna planifikatzen hasi daitezten. **Ahozko jardunaren 5. eta 6. etapak.**

8-9. SAIOAK

Prestatutako txostena aurkezten trebatuko dira: ikasleek bikoteka elkarri azalduko diote bideodeian azaldu beharrekoa (**ahozko jardueraren 6. etapa, entsegua**). Irakaslearekin adostuko da nork norekin egingo duen. Aurkezpena grabatuko dute eta errubrika bidez ebaluazioa egiteko aukera izango dute irakaslearen laguntzaz (errubrika bera erabiliko dute azken ekoizpena ebaluatzeko ere, eta entseguaren aurretik azaldu eta banatuko zaie).

10. SAIOA

Ordenagailuz bidezko bideodeia. Eskola bietako bikoteek elkarri txostena aurkeztuko diote. Aurkezpena amaitutakoan, koebaluazioa egingo dute. Bikote bakoitzak beste eskolako bikoteak egindako aurkezpena ebaluatuko du, entseguarako erabili zen errubrika erabiliz.

11. SAIOA

Autoebaluazioa: ikasle bakoitzak irakasleak prestatutako autoebaluazio-galdetegia beteko du, hausnarketa egin eta ikasi duenaz jabetzeko helburuarekin. Autoebaluazio-galdetegia bete aurretik, trebatzeko grabaturiko bideoa eta beste ikastetxeko ikasleekin egindako bideodei saioak ikusiko dituzte.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

- **Idatzizko txostena: azken kalifikazioaren %40.**
- **Txostenaren aurkezpena (bideodeia): azken kalifikazioaren %60.**

DURANGO

1. SAIOA

Proiektua aurkeztu (zer egingo dugun, nola eta zertarako azaldu). Gaiaren sarrera moduan honako bideo hau sar daiteke, ikasleak kokatzeko:

<https://www.youtube.com/watch?v=YUVkKmdcSMM> . **Ahozko jardueraren 1. etapa.**

Gelako aurkezpena grabatu (10 minutu). Ikasle guztiek euren burua aurkeztuko dute, izena eta zaletasunak biltzen dituzten esaldi batzuk aipatuz. (Partekatutako Drive karpetara igoko da Durangoko ikasleek ikus dezaten).

2. SAIOA

AZKOITIKO 4. SAIOA - BINAKAKO ZUZENEO AURKEZPENA (DURANGO-AZKOITIA)

Ikastetxe bietako bikoteak harremanetan jarriko dira zuzenean (MEET) elkarren berri izateko. Aurretiaz, gidoia emango zaie esan behar dutena prestatu dezaten. Gidoia prestatzeko 15 minutu izango dute, eta, ondoren, konektatu egingo dira.

Gidoia:

-Durango/Azkoitia ezagutzen dugu? Egon zara inoiz? Zure herria bisitatzea merezi duen lekuren bat eta zergatik.

-Zeure burua deskribatzen duten 3 ezaugarri (lotsatia/ausarta, isila/berbatia...).

-Gustuko irakasgaiak, zergatik?

-Aisialdia: asteburuetako ohiturak...

-Eskolaz kanpoko ekintzak: kirolak, hizkuntzak...

-Musika: gustuko musika, gomendioak...

-Euskarak haien bizitzan duen tokia.

3. SAIOA

Azkoitiko grabazioak aztertuko ditugu. Galdetegi bat prestatu ezaugarririk garrantzitsuenak adierazteko:

- esapideak (<https://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/>)
- erabiltzen dituzten esaldiak. (nolako esaldi motak)
- gorputz-mintzaira
- adierazkortasuna
- ahoskera

Durangoko euskararen nola esango genuke?

4. SAIOA

Taldeka, irakasleak proposatutako lagunarteko egoerak simulatu beharko dituzte, ikasitako ezaugarriak kontuan hartuz.

5-6. SAIOAK

TXOSTENA PRESTATZEN HASI

Bikote bakoitzak bere inguruko erliebea eta paisaia aztertuko ditu. Txostenaren edukia ondo zehaztuko zaie, baita ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak ere (errubrika).

Txostenaren edukia (**ahozko jardueraren 3. etapa**, hau da, informazioa bilatzea eta gaia sakon prestatzea):

1.- Herriari buruzko datu orokorrak

- Kokapena, biztanle-kopurua.
- Etimologia.
- Zerk egiten duen herria ezagun.

2. Erliebeari eta inguruneari buruzko datuak (Biologia eta Geologia)

- Zer erliebe forma den nagusi eta erliebe forma horren ezaugarri nagusiak (inguruko paisaien 3-4 argazki sartu behar dira. Ikusgarriak badira hobe). Herriko natura-inguruneak bizimoduan izan duen eragina aipatu.
- Inguruneko landaretza eta fauna, eta horrek bizimoduan izan duen eragina.

- Naturaren baldintzek bertako hizkuntzan utzi dituen arrastoen adibide batzuk (toponimia: gutxienez 5 adibide).

Informazioa lortu eta aztertzeko honako esteka hauek emango zaizkie ikasleei laguntzeko:

<https://durangaldeaturismoa.eus/urkiola/durangaldeko-mendiak/>

www.urkiola.net

[https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Erliebe_\(geografia\)](https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Erliebe_(geografia))

<https://eu.wikipedia.org/wiki/Durango>

7. SAIOA

Txostenak zuzenketekin banatu, eta hasi ahozko jarduna planifikatzen eta gidoia egiten (**ahozko jardunaren 5. eta 6. etapak**).

8. SAIOA

Prestatutako aurkezpena trebatzeko (**ahozko jardueraren 6. etapa, entsegua**), ikasleek bikoteka elkarri azalduko diote (irakasleak zehaztuko du nork norekin egingo duen). Aurkezpena grabatuko dute eta errubrika bidez autoebaluazioa egiteko aukera izango dute. Errubrika bera erabiliko da azken ekoizpena ebaluatzeko eta entseguaren aurretik azaldu eta banatuko zaie (errubrika etxean beteko dute).

9. SAIOA

Ordenagailu bidezko bideodeia. Eskola bietako bikoteek elkarri txostena aurkeztuko diote. Aurkezpena amaitutakoan, koebaluazioa egingo dute. Bikote bakoitzak beste eskolako bikoteak egindako aurkezpena ebaluatuko du, entseguarako erabili zen errubrika erabiliz.

10. SAIOA

Autoebaluazioa: ikasle bakoitzak irakasleak prestatutako autoebaluazio-galdetegia beteko du, hausnarketa egin eta ikasi duenaz jabetzeko helburuarekin. Autoebaluazio-galdetegia bete aurretik, trebatzeko grabaturiko bideoa eta beste ikastetxeko ikasleekin egindako bideodei saioak ikusiko dituzte.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

- **Idatzizko txostena: azken kalifikazioaren % 40.**
- **Txostenaren aurkezpena (bideodeia): azken kalifikazioaren % 60.**

II. ERANSKINA (ERRUBRIKAK)

IDATZIZKOA (TXOSTENA) EBALUATZEKO ERRUBRIKA

		0,5 (hobetu beharra du)	1 (gutxienean bete du, baina hobetu dezake)	1,5 (ondo bete du, zerbait hobetu dezake)	2 (guztiz bete du)	GUZTIRA
EGOKITASUNA puntu 2	Herriko paisaiaren ezaugarriak, erliebe mota, eta giza -ohitura eta hizkuntzarekin duen <u>lotura</u> aipatu du. Informazioa oinarri zientifikoarekin aztertu du.					
ATALAK ETA HITZ-KOPURUA puntu 2	Atal <u>guztiak</u> landu ditu eta <u>hitz-kopurua</u> bete du (gutxiengoak eta gehienekoak errespetatu ditu).					
ZUZENTASUNA ETA ABERASTASUNA puntu 2	<u>Terminologia</u> egokia erabili du eta <u>argi</u> komunikatu du (terminologia zientifikoa).					
ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA puntu 2	Ortografia eta puntuazioa egokiak izan dira.	10 akatsetik gora	6-9 akats	2-6 akats	2 akats gehienez	
TXUKUNTASUNA puntu 2	Txostenaren formatua, azala, paragrafoen ordena, irudiak...					
GUZTIRA						

OHARRAK:

AHOZKO AURKEZPENA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

		0,5 (hobetu beharra du)	1 (gutxieneko a bete du, baina hobetu dezake)	1,5 (ondo bete du, zerbait hobetu dezake)	2 (guztiz bete du)	GUZTIRA
GAIA puntu 2	Txosteneko edukietan oinarritu da jardunerako <u>terminologia</u> egokia erabili du.					
ANTOLAKETA puntu 2	Atal <u>guztiak</u> landu ditu. Egitura oinarritzko bat garatu du (sarrera, garapena eta agurra).					
JARIOA, ABIADURA puntu 2	Etenak, entzuleak kontuan izan ditu. Bat-batekotasuna, naturaltasuna...					
ZUZENTASUNA eta ERREGISTROA puntu 2	Erregistro jasoa/lagunartekoa... Egitura sintaktiko egokiak erabili ditu.					
AHOSKERA eta ADIERAZKORTASUNA puntu 2	Ongi ahoskatu du eta erraz ulertzen zaio. Ozentasuna, intonazioa, gorputz-hizkuntza egokiak izan dira.					
GUZTIRA						

OHARRAK:

III. ERANSKINA (GIDAK)

TXOSTENA EGITEKO GIDA

1. Herriari buruzko datu orokorrak (gutxienez 150 hitz)

- Kokapena, biztanle-kopurua.
- Etimologia.
- Zerk egiten duen herria ezagun.

2. Erliebeari eta inguruneari buruzko datuak (gutxienez 300 hitz)

- Zer erliebe forma den nagusi eta erliebe forma horren ezaugarri nagusiak (inguruko paisaien 3-4 argazki sartu behar dira. Ikusgarriak badira hobe). Herriko natura-inguruneak bizimoduan izan duen eragina aipatu.
- Inguruneko landaredia eta fauna, eta horrek bizimoduan izan duen eragina.
- Naturaren baldintzek bertako hizkuntzan utzi dituen arrastoen adibide batzuk (toponimia: gutxienez 5 adibide).

BIDEODEIA PRESTATZEKO GIDA

1. Antolaketa: aurkezpena, garapena eta agurra ondo bereiztu.
2. Gaia landu (terminologia zehatza).
3. Zuzentasuna eta erregistroa (formala, informala, entzuleari bideratua...).
4. Ahoskera eta adierazkortasuna (gorputz-mintzaira, ozentasuna...).

*** Gogoratu errubriketan dauden irizpideak izan behar direla kontuan: zuzentasuna, ortografia, txukuntasuna, gaia, erregistroa eta adierazkortasuna...**

IV. ERANSKINA (AUTOEBALUAZIOA)

Autoebaluazioa	Bikain	Ondo	Nahikoa	Hobetu beharra	Zer egin dezaket hobetzeko?
Lagunarteko erregistroaren ezaugarriak ikasi ditut (Durango).					
Naturak eta gure hizkuntzak duten loturaz jabetu naiz.					
Txosten idatzia egiteko beharrezko informazioa bilatu eta egokia den aztertu dut.					
Elkarrizketa bat bideratzeko behar diren baliabideak, estrategiak eta erregistroa egoki baliatu ditut.					
Gure ikastetxe eta herritik kanpoko ikasleekin lan egitea aberasgarria iruditu zait.					